

LEHEN eta HAUR HEZKUNTZA
GRADU BIKOITZA
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia
Fakultatea



IV MODULOA
ANIZTASUNA ESKOLAN

2025/26 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

HEFA II ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA

Eskola inklusiboaren oinarriak	Andoni Arguiñano
Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza Haur Hezkuntza	Berta Echeberria
Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan	Kepa Matxain
Ikastetxearen antolakuntza	Nahia Intxausti
Informazio eta Komunikazio Teknologiak Haur Hezkuntzan	Nahia Delgado (Koord.)

Aurkibidea

1. Sarrera.....	4
2. Konpetentziak eta ebaluazio irizpideak.....	4
3. Taldeen egitura	6
4. Ebaluazioa	6
5. Lan gidatua.....	7
5.1. Lanaren aurkezpena	7
5.2. Lanaren urratsak.....	7
5.3. Lan idatziaren egitura	8
6. Ahozko aurkezpena: mahai-ingurua	9
7. Kronograma	10
8. Ahozko aurkezpena: mahai-ingurua	11
9. Eranskinak.....	12
1. eranskina: aztertu beharreko egoera	12
2. eranskina: lehen zirriborroa egiteko eskema	23
3. eranskina: bigarren zirriborroa egiteko eskema	24
4. eranskina: talde lanerako errubrika.....	25
6. eranskina: mahai-inguruaren ebaluaziorako errubrika	28
9. eranskina: moduluaren ebaluazio gida ikasleentzat.....	32
10. eranskina: moduluko lana egiteaz salbuestea	33
11. eranskina: moduluko lana gainditu ezean	34
12. eranskina: talde eta tutoreen banaketa	34

1. Sarrera

Aurreko moduluetan egin bezala, 2. mailako bigarren lauhileko honetan ere, moduluko irakasgai guztien artean lan modularra jarriko da martxan. Irakasgai bakoitzak bere konpetentziak ditu, baina hainbat konpetentzia zeharkakoak dira, irakasgai guztien artean landu beharrekoak. Horiek lortzera bideratua da hemen aurkeztu den lana. Lauhileko honetan honako irakasgaiak izango dituzte ikasleek:

- Eskola inklusiboaren oinarriak (6 kreditu)
- Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza Haur Hezkuntza (6 kreditu)
- Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan (6 kreditu)
- Ikastetxearen antolakuntza (6 kreditu)
- Informazio eta Komunikazio Teknologia Haur Hezkuntzan (6 kreditu)

2. Konpetentziak eta ebaluazio irizpideak

Ondoko taulan zehazten dira Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak titulazioaren arabera modulu honetan landu behar diren zeharkako konpetentziak eta konpetentzia horietatik eratortzen diren ikaskuntza-ondorioak.

LH GRADUKO KONPETENTZIAK	LAN MODULARREKO KONPETENTZIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
G004 (LH) G003 (HH)	1. Lehen Hezkuntzako ikasgelan aniztasunaren inguruan eman daitezkeen egoerak identifikatzea eta taldean horren berri elkarri ematea.	1.1. Aniztasunaz begirunez hitz egiten du.
		1.2. Gatazka egoerak hobekuntzarako eta aldaketarako erabilgarri ikusten ditu.
		1.3. Elkarlanean konfiantzaz aritzen da.
G011 (LH) G007 (HH)	2. Hezkuntzaren arloko dokumentazio zientifikoak bilatzea, gaur egun onartuak diren datu baseak erabiliz hautatzea (Dialnet, Web of Science, Scopus, Web of Knowledge) eta marko teorikoa osatzea.	2.1. Esanguratsuak diren iturriak bereizten ditu.
		2.2. Jasotako informazioa bahetzen eta uztartzen du.
G013 (LH) G006 (HH)	3. Hezkuntza gaiei buruzko dokumentuak zuzentasunez idaztea, ideien antolaketa egokia eginez, kohesioa mantenduz eta gidoian agertzen den eskema jarraituz.	3.1. Testua era kohesionatu, koherente, egoki eta zuzenean taxutzen du.
		3.2. Gaiari dagokion terminologia espezializatua erabiltzen du.
		3.3. APA arauak behar bezala jarraitzen ditu.

G005 G008 (LH) G013 (HH)	4. Hezkuntzako testuinguru eta egoerei buruzko teoriak (dokumentazio zientifikoa) aztertuta, praktika zehatzekin uztartzea eta diziiplina anitzetatik osatutako ekarpenak proposatzea, sormenez.	4.1. Teoria desberdinen argi-ilunak jasotzen ditu.
		4.2. Teoriak aztertutako kasuarekin lotzen ditu.
		4.3. Planteatutako egoerei aurre egiteko hezkuntza erantzun egokiak proposatzen ditu.
		4.4. Taldearen nortasunetik abiatutako proposamenak egiten ditu.
G013 (LH) G013 (HH)	5. Ikerketa prozesuan koherentziaz antolatutako informazioaren eta elaboratutako ideien sintesia ahoz aurkeztea eta besteen diskurtsoak irekitasunez errespetatzea.	5.1. Eskolako aniztasuna aztergai duen ikerketaren emaitza ahoz jendarteratzen du mahai-inguruaren testuinguruan.
		5.2. Trukean jasotako iritziak begirunez onartzen ditu.
		5.3. Sor daitezkeen diskurtso anitzak aintzat hartzen ditu.
G012 (LH) G012 (HH)	6. Hezkuntza erakundeetako aniztasuna aztergai izanik, gogoetarako galderak eta hobekuntza egingarriak planteatzea, modu kolektiboan hausnarketa kritikoa sortaraziz.	6.1. Planteatutako hezkuntzarako aniztasun egoerak irizpidez balioesten ditu.
		6.2. Kasu bakoitzaren esku-hartzea hobetzeko proposamenak egiten ditu.

3. Taldeen egitura

- Lauko taldeak osatuko dira moduluko lana burutzeko.
- Taldeak ikasleek osatuko dituzte.
- Talde bateko kide izateak berekin dakar eskoletara etortzeko konpromisoa eta talde-lanean parte hartzeko betebeharra.

4. Ebaluazioa

Moduluko lanak irakasgai guztietako ebaluazioaren %20 balioko du. Gainerako %80 irakasgai bakoitzeko irakasleak zehaztuko du. Irakasgaiak gainditzeko nahitaezkoa izango da moduluko lana ere gainditzea. Moduluko lanari dagokion ehuneko hori honela banatuko da:

- Lanaren prozesua eta mahai-ingurua (%5)
 - Prozesua lana tutorizatuko duten bi irakasleen artean ebaluatuko da. Aintzat hartuko da zereginak epean eta behar bezala aurkeztea (zirriborro bakoitzaren eskakizun zehatzei lotzea) eta, oro har, lanaren prozesua behar bezala burutzea. Era berean, egindako iradokizunak zirriborroetan aintzat hartzea eta tarteko urratsak eskatutako prozeduren arabera egitea baloratuko da.
 - Mahai-inguruak: ikus ebaluazio irizpideak 6. eranskinean.
- Lanaren txosten idatzia (%15): ikus ebaluazio irizpideak 5. eranskinean.

Moduluko irakasgai guztietan matrikulatuta ez dauden ikasleen kasuan, honela jokatu da: irakasgai bakarra egin behar duen ikasleak irakasleak zehaztutako ebaluazio-sistema jarraituko du eta ez du moduluko lanik egin beharko. Moduluko bi irakasgaitan edo gehiagotan matrikulatuta dauden ikasleek moduluko lana egin beharko dute.

- Ikasle guztiek egin behar dute moduluko lana (ikus 10.eranskina, "Moduluko lana egiteaz salbuestea", azken orrian).
- Irakasgairen bat gainditzeko ez bada, baina moduluko lana bai, horri dagokion nota gorde egingo da ezohiko deialdira arte.

Lan idatzirako adimen artifizialaren erabilera ez da onartuko eta atzera botako da lana azken bertsioan.

5. Lan gidatua

5.1. Lanaren aurkezpena

Modulu honetan, Haur edo Lehen Hezkuntzako eskola batean kokatzen den egoera baten azterketa egingo da (ikus 1. eranskina). Horretarako, aukeran dauden 10 egoeretatik bat hautatuko da (guztiak esleituta geldituko dira dauden taldeen artean). Egoera bakoitzari dagokion informazioa jaso eta eduki teorikoekin kontrastatu ondoren, eskola-komunitateak egoera horri eman diezazkiokeen erantzun posibleak aztertu eta esku-hartze proposamen bat diseinatuko da. Lanaren azken xedea artikulua akademiko bat idaztea izango da. Halaber, lana gainerako ikasleei ahoz aurkeztu beharko zaie horretarako prestatutako mahai-inguruetan.

5.2. Lanaren urratsak

5.2.1. Taldeen osaketa: taldearen fitxa bete eta irakasle tutoreari eman.

5.2.2. Lanaren garapena:

A) Hasierako egoera aztertu eta labor azaldu.

- **Egoeraren azterketa:** aukeratutako egoerara hurbiltzeko, ondorengo galderak erantzungo dira taldean: zer dakigu arazo edo gai honi buruz? Ezagutzen al dugu antzeko egoerarik? Entzun al dugu inoiz gai honen inguruko ezer? Antzekorik bizi izan al dugu? Zeintzuk dira planteatutako egoeraren gako nagusiak? Ondoren, planteatzen den egoeraren funtsa ondo ulertzeko, talde bakoitzak dituen zalantzak (terminologia, kontzeptuak eta abar) zehaztuko dira.
- **Egoeraren azalpena:** egoeraren gakoak identifikatu eta honen inguruan hausnartu ondoren, paragrafo batean azaldu beharko da taldeak egoeraren zein irakurketa egiten duen.

B) Irtenbideak bilatzeko bidea egin.

Egoerari konponbidea emateko ondorengo bi urratsak jarraituko dira:

- **Esku-hartzearen behin behineko helburuak finkatu:** zeintzuk izango dira identifikatu ditugun gakoetatik abiatuta gure esku-hartzearen helburu nagusiak? Zer lortu nahi dugu diseinatuko dugun esku-hartzearen bidez?
- **Informazio bildu eta partekatzeko prozedura zehaztu:** egoera horren ezagutza sakontzeko bilatu beharreko informazioa zein datu basetan bilatuko den eta lan hori taldekideen artean nola banatuko den azalduko da, baita bildutako informazioa taldekideen artean nola partekatuko den ere.

D) Informazioa bilatu, hautatu eta aztertu ostean, marko teorikoa idatzi.

Taldekide bakoitzak aurkitutako informazioa gainerako taldekideei aurkeztu ondoren, marko teorikoa idatziko da APA araudiari jarraituz (testu barruan zein erreferentzia bibliografikoen zerrendan). Kontuan izan marko teorikoak gutxienez 10 erreferentzia izan behar dituela eta horietako 5 azken bost urteetan egindakoak izan behar direla.

E) Behin behineko helburuak doituz, behin betikoak finkatu.

Marko teorikoan bildutako edukiak kontutan hartuta, behin behineko helburuak errebisatu eta doitu beharko dira behin betiko helburuak finkatzeko. Proposamen hori moduluko irakasgaien ikuspegi orohartzaile batetik abiatuta egin beharko da.

F) Esku-hartzea diseinatu.

Esku-hartze proposamen bat diseinatuko da finkatutako helburuei erantzuteko. Esku-hartze hori lanaren marko teorikoan oinarrituko da eta Haur Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko proposamen bat izango da.

G) Ondorioen zehaztapena, ikasitakoaz eta jarraitutako prozesuaz ebaluaketa eta entregatu beharreko lanaren azken bertsioa prestatu.

5.2.3. Lanaren aurkezpena: Ikasle talde bakoitzak txosten idatzia egelara igoko dute eta mahai-inguruan ebaluatzaile gisa jardungo duten bi irakasleei emailaz azken bertsioa helaraziko diete.

5.3. Lan idatziaren egitura

Lanak artikulu akademiko baten egitura eta ezaugarriak izango ditu, eta honako atalak izango ditu:

1. Izenburua: edukia jaso eta laburbildu behar du. Erakargarria eta sortzailea izan behar du.
2. Abstract-a: euskaraz eta ingelesez. 150 hitz gutxi gorabehera hizkuntza bakoitzean: lanaren laburpen txikia, atal guztien berri jasoz eta ekarpen nagusiak zein diren azalduz.
3. Hitz gakoak: 4 gehienez.
4. Sarrera (orri bat): irakurlea kokatuko du irakurtzera doan lanean: egoeraren aurkezpen-deskribapena, lanaren helburu orokorra eta egitura., aurreratuko dira.
5. Marko teorikoa (6-7 orri)
6. Helburuak.
7. Esku-hartzea (4-5 orri)
8. Ondorioak (2-3 orri): Burututako esku-hartzearen sintesia, egindako ekarpen nagusiak azpimarratuz marko teorikoaren argitan.
9. Talde hausnarketa (orri bat): lanari buruzko gogoeta egingo da talde lanerako errubrikatik eratorritako hausnarketak erabiliz (eta aktak jaso dituztenen kasuan, hauek baliatuz): prozesuan izandako bizipenak, sortutako gogoetak, aurreiritzien egokitasuna, taldekideen ikuspegia zertan aldatu den, zer ikasi den lan honen bidez ...
10. Erreferentziak
11. Eranskinak: Talde lanaren errubrika beteta (4. Eranskina), moduluko laneko ebaluazio orria (9. eranskina) eta bestelako dokumentuak.

Formatuari eta aurkezteko moduari dagokionez honako ezaugarriak izan beharko ditu artikulua:

- Erreferentzia bibliografikoak eta aipua APA 7 (American Psychological Association)-ren arauen arabera emango dira.
- Luzera: 15-20 orrialde, eranskinak kontuan hartu gabe
- Letra-tamaina: ARIAL 12
- Lerro-arte: 1,5.
- Formatua: Word, PDF
- Egelara igoko da adierazitako lekuan

6. Ahozko aurkezpena: mahai-ingurua

Lan idatzia aurkeztu ostean, azken eskola-asteko egun batean mahai-inguruak egingo dira, horretarako ordutegi berezia zehaztuta. Mahai-inguruen helburua taldeek elkarren lanaren berri izatea eta lana egitean ikasitakoaz hausnarketa partekatua egitea da. Honela antolatuko dira mahai-inguruak:

- Mahai-inguruak ordu eta erdiko blokeka banatuko dira eta bloke bakoitzean 4 taldek hartuko dute parte.

Norbere talde aurkezpena egiterakoan:

- 1. atala (40 min): ikasle-ekipoetako bozeramaileak/bozeramaileek (taldeak berak erabakiko du bat ala bi izango diren) 10 minutu izango ditu lanaren edukia azaltzeko.
- 2. atala (45 min): ikasle guztien arteko solasaldi-eztabaida egingo da, irakasleek gidatuta. Bozeramaile izan ez diren taldekideek parte hartu beharko dute.

Besteen aurkezpenetan:

- Ikasle guztien arteko solasaldi-eztabaida egingo da. Horretarako, talde bakoitzeko kide guztiek parte hartu beharko dute eztabaidetan. Ez da kontuan hartuko norberak bere aurkezpenean duen rola (bozeramaile izan den edo eztabaidan parte hartu duena izan den), izan ere, ikasle guztiek gainerako taldeen eztabaidetan parte-hartze aktibo eta parekoa izan beharko dute.

7. Kronograma

ASTEA		ZEREGINA	NOIZ
1. astea	Otsailak 26-30	Txostena aurkeztu eta zalantzak argitu (ikasleek etxean irakurrita ekarriko dute). Taldeak osatu, egoera aukeratu eta irakasle arduradunari fitxa entregatu. Talde batek baino gehiagok egoera bera aukeratuz gero, zoriz egingo da banaketa.	Saio teoriko batean. “Informazio eta komunikazio teknologiak Haur Hezkuntzan” irakasgaiko saio teoriko batean
2. astea	Otsailak 2-6	Hasierako egoera aztertu eta gakoak identifikatu. Irtenbidea bilatzeko bidea egin: -Egoera aztertu eta gaiak dakiguna eta jakin nahi duguna definitu. -Esku-hartzearen behin behineko helburuak definitu.	“Eskola inklusiboaren oinarriak” irakasgaiko saio praktikoko batean
2. astea	Otsailak 2-6	-Taldea dinamikak.	“Ikastetxearen antolakuntza” irakasgaiko saio praktikoko batean.
4. astea	Martxoak 6	1. zirriborroa entregatu (ikus 2. eranskina).	Egelara igo.
5. astea	Martxoak 9-13	1. zirriborroaren feedbacka.	Tutorearen saio praktikoko batean.
9. astea	Martxoak 27	2. zirriborroa entregatu (ikus 3. eranskina).	Egelara igo.
10. astea	Martxoak 30-Apirilak 1	2. zirriborroaren feedbacka.	Tutorearen saio praktikoko batean.
12. astea	Apirilak 13-7	Lan idatziaren egituraketa errepasatu eta mahai-inguruak prestatzeko saioa.	“Informazio eta komunikazio teknologiak Haur Hezkuntzan” irakasgaiko saio praktikoko batean
14. astea	Maiatzak 4-8	Lana erredaktatu.	Ikasgaietako ordu guztiak DILANA egiteko erabiliko dira. Ikasleak gelara bertaratu beharko dira moduloko lanaren lanketa egiteko.

14. astea	Maiatzak 8	Lana entregatu.	Egelara igo.
15. astea	Maiatzak 11-15	Mahai-inguruak prestatzeko astea	Ikasgaietako ordu guztiak DILANa egiteko erabiliko dira. Ez da saio arruntik izango. Aurkezpenetan baliabideren bat erabili nahi bada (Power Point, Canva, PDF) ezinbestekoa izango da aste honetan zehar eta maiatzak 14a baino lehen entregatu beharko da. Mahainguruak ostiralean izango dira (maiatzak 15ean)

Udaberriko oporraldia: apirilak 2-12

8. Ahozko aurkezpena: mahai-inguruak

Lan idatzia aurkeztu ostean, azken eskola-asteko ostegun eta ostiralean mahai-inguruak egingo dira, horretarako ordutegi berezia zehaztuta. Mahai-inguruen helburua taldeek elkarren lanaren berri izatea eta lana egitean ikasitakoaz hausnarketa partekatua egitea da. Honela antolatuko dira mahai-inguruak:

- Mahai-inguruak ordu eta 40 minutukoak izango dira. Bi bloketan banatuko dira taldeak. Bloke bakoitzean 5 taldek hartuko dute parte.
- Bloke batean 3 irakasle egongo dira ebaluatzen eta beste blokean bi irakasle.
- Talde bakoitzarekin ondorengo sekuentzia hau jarraituko da:
 - 1. Lanaren azalpena: ikasle-ekipoetako bozeramaileak/bozeramaileek (taldeak berak erabakiko du bat ala bi izango diren) 10 minutu izango ditu lanaren edukia azaltzeko, horretarako soportea digitala erabiliko dute (ppt-, prezi etab.).
 - 2. Solasaldi-eztabaida: ikasle guztien arteko solasaldi-eztabaida egingo da talde horrek aurkeztu duenaren gainean, irakasleek gidatuta. Bozeramaile izan ez diren taldekideek parte hartu beharko dute derrigorrez.

ERANSKINAK

1. eranskina: aztertu beharreko egoera

Hamar egoera desberdin aurkeztuko dizkiegu ikasleei. Talde bakoitzak egoera bakar bat aukeratu eta aztertuko du. Banaketa egiteko orduan kontuan hartuko da ezingo dela egoerarik aztertu gabe gelditu (irakasleak erabakiko du banaketa hori egiteko formularik egokiena zein den).

1. Egoera: Eskola komunitatea sendotzen familia guztiekin batera

Aurkezten dugun kasuko eskola, eskola publiko bat da. Azken urteetan familia etorkinak ugaritu dira auzoan, eta askok egin dute eskola honen aldeko hautua. Batzuk, inertziaz, etxetik gertu zuten eskola zelako. Baina badira kontzienteki hautua egin duten familiak ere; izan ere, auzoan ospe ona duen eskola bat da. Auzoan esaten da “familiak asko zaintzen dituen eskola bat dela”, “familiak eta haurrak oso gustura daude, ondo tratatzen dituztela”... Horrelako esaldiak entzuten dira.

Zuzendaritza taldea oso talde konprometitua da, auzokoak izanik gainera, badakite eskola bezala erronka handi bati erantzuten ari direla, eta konpromiso handiarekin dihardute, lantaldean. Familiak zaintzen bereziki trebeak dira, juzguak alde batera utzi eta beraien beharrak entzuten eta ulertzen dituzte. Jarrera horrek asko laguntzen du, familiek entzunak izatea baita neurri batean gehien baloratzen dutena. Behar den denbora hartzen dute familiekin, ikasleren batekin arazoren bat dagoenean segituan deitzen dute familia, eta gertutasun hori izan da eskolaren arrakastaren gako nagusietako bat.

Azken bi urtetan pakistandar familiak hasi dira etortzen, eta gaur egun handik etorritako ikasle dezente ditu ikastetxeak. Egoera hau berria da ikastetxearentzat, eta familia etorri berri horiekin harremana eraikitzen hastea erronka bilakatu da. Ikastetxeak dakiela, herrian eta inguruan ez dago pakistandarren elkarerik, baina badute etorkinen elkarte bat (AMAKI) etorkinen alde lan handia egiten duena. Bestetik, badakite Azkoitian ere pakistandar komunitate handia dutela eta hango eskolak erronka horri heldu diola aurretik (Harrera Plana dute, familia laguna programa dute, ongi etorri eskolara ere bai). Egoera hau gertatzen den herrian euskararen egoera ez da Azkoitiakoa bezain ona eta horrek are gehiago zailtzen du ikastetxeak familia hauekin duen erronka. Izan ere, Azkoitiak ikasle pakistandarrek eskolan eta eskolaz kanpo euskaraz egiteko aukera (eta kasu askotan beharra) daukate, horixe baita herriko hizkuntza nagusiak. Egoera hau gertatzen den herria, berriz, Arrasate izan daiteke adibidez (edo Zumarraga, Elgoibar, Andoain, Lasarte... Ordizian ere justu pakistandar asko daude, baina soziolinguistikoki euskaldunagoa da besteak baino. Ados bazaude, pare bat esaldi gehitzearekin nahikoa izan daiteke ikasleek ildo hori ere jorratzeko.

Orain arte, ijito komunitatearekin lan egiteko AMUGE elkartearekin aritu dira; familia hauekin gosari informalak antolatzen ere aritu izan dira eta ekintza horietan batez ere amek parte hartu dute. Nolanahi ere, egun bizi duten egoeraren aurrean bide berriak bilatu behar dituztela uste dute, izan ere, pakistandarren kasuan aitek bakarrik dakite hemengo hizkuntzaren bat (gaztelania kasu honetan) eta amak etxean geratzen dira gehienetan, eskolarekin inongo harremanik izan gabe. Eskolarekin harremana aitek egiten dute, beraz, baina ondoren lanean izaten dira egun osoz eta horrek asko zailtzen du eguneroko dinamikan ikasleek beharko luketen jarraipena egitea. Ikasleei ere asko kostatzen ari zaie eskolara egokitzea, hizkuntza biak ikasi beharra, eskolaren kultura ulertu eta horretara egokitzea, esaterako, ikasleek agertzen dituzten jarrera batzuetan errespetu falta ikusten dute autoritatearekiko... Hainbat ekintzen aurrean kulturalki eta erlijio ikuspegitik talka handia dago. Izan ere, eskolan ospatzen diren egun batzuekin ez dira eroso sentitzen familia batzuk, nahiz eta ez duten esaten (adibidez, maiatzaren 17arekin, homofobia, transfobia eta bifobiaren aurkako egunarekin). Eskolak, beraz, modu planifikatuan aurre egin nahi dio familia berriak eskolara egokitzearen erronkari. Horretarako Harrera Plana moldatu, kultur arteko hezkuntzaren ikuspegia landu, eta familien parte hartzea handitzeko gakoak zeintzuk diren aztertzeko hautua egin dute. Elkarbizitza Batzordetik helduko diote erronkari, zuzendaritzaren lidergoarekin batera.

2. Egoera: Pantailen erabilera etxean

Alicia Donostiako Amara auzoko etxebizitza batean bizi den 5 urteko alaba bakarra da. Gurasoak lanaldi osoko jarduna dute eta lanetik bueltatzen direnean, nekatuta daudenez, askotan etxeko telebista eta tableta erabiltzen dituzte Alicia entretenitzeko. Txikitatik, pantaila horiek haurren garapenerako lagungarri direla uste izan dute, hizkuntzak edo eduki akademikoak ikasten laguntzen duten joko interaktiboak eta bideoak eskaintzen baitituzte. Gurasoek ez dakite euskaraz eta Alicia eskolaren bidez euskalduntzen ari da (D ereduan). Gainera, eskolaz kanpo ez du euskaraz eskaintzen diren ekintzetan parte hartzen, ingeleseko eskoletara joaten baita bakarrik. Gurasoek garrantzi handia ematen diote ingelesari eta horregatik tabletan jartzen dizkioten jolas eta programa interaktibo gehienak ingelesez daude, hauen bidez hizkuntza maila on bat lortuko duela pentsatzen baitute. Hala ere, ez dira konturatu Aliciak denbora gehiegi ematen duela haien aurrean eta menpekotasuna duela. Izan ere, tableta bateriarik gabe baldin badago urduri jartzen da, azkar pizteko eskatuz. Gainera, etxera sartzerakoan tableta eskatzen du beti, horretara ohitu baita. Tarteka gurasoek beste zerbaitekin jolasteko esaten diotenean, Aliciak ez du nahi izaten eta gurasoak konturatzen hasi dira tabletarekin ez bada, ez dakiela berak bakarrik beste jostailu edo jolasen batekin entretenitzen.

Aliciak Haur Hezkuntzako eskola batean ikasten du, 25 ikaskiderekin. Hasieratik, irakasleek nabaritu bere portaeraren alderdi batzuek arreta deitzen dutela eta Aliciak ez duela harreman esturik bere adineko gainerako haurrekin, ez baitu beraiekin asko hitz egiten edo jolastu nahi izaten.

Alde batetik, Aliciak zailtasunak ditu kontzentratzeko. Irakasleek ikusi dute irakurtzen edo marrazten saiatzen denean arreta galtzen duela eta zereginak amaitu gabe uzten dituela. Taldeko jarduerak bereziki luzeak eta jarraitzeko zailak egiten zaizkio. Ipuin kontaketa saioetan ere arreta galtzen du eta kontakizunen haria jarraitzea kostatzen zaio. Gainera, Alicia antsietate sintomak agertzen hasi da, hala nola, urduritasuna, arreta-arazoak, nekea, suminkortasuna. Talde-jokoetan parte hartzera gonbidatzen dutenean, oso urduri sentitzen da, eta askotan elkarrekintza saihesten du. Badirudi hizkuntzari dagokionez nahi duena adierazteko zailtasunak izaten dituela (baita kasu askotan irakaslearen azalpenak ulertzeko ere).

Jolas-orduan, Aliciak nahiago izaten bazter batean bakarrik jolastu, lagunekin elkartu beharrean. Batzuetan, haur batzuk saiatzen dira Alicia beraiekin jolastera gonbidatzen, baina bere erreakzioa iheskorra izaten da; deseroso agertzen da, beldurra edo interesik eza adieraziz. Beraz, ikaskideak bere jarreraz aspertzen hasiak dira eta bakarrik uzten dute.

Aliciak bere irakasleekin duen harremana ere korapilatsua da. Askotan ezintasuna sentitzen du, konturatzen baita ezin duela bere kideen erritmoa jarraitu, asko kostatzen baitzaio kontzentratzea eta ariketak besteen abiaduran amaitzea. Irakasleak Alicia motibatzen saiatzen dira, baina neskatoak ez du interesik gelako jardueretan. Jolas libreko garaian ere bakarka jolastea nahiago du eta normalean hizkuntza gutxi erabili behar den guneetan aritzen da. Jardueretan parte hartzeko eskatzen zaionean, presiopean eta isolatuta sentitzen da askotan, eta horrek autoestimuari eragiten dio.

Etxean igarotzen duen denbora gehiena pantailen aurrean ematen du eta ingurukoekiko interakzio gutxi izateak bere gizarte-trebetasunak mugatu ditu. Bere hitzezko komunikazioa urria da, eta Alicia ez dago ohituta beste haurrekin parte hartu behar duen egoeretara. Horren ondorioz, ikaskideek "neska arraro" gisa ikusten dute ikasgelan, eta horrek indartu egiten du kontaktua saihesteko nahia.

Kezka horiei heltzeko, irakasleek zerbait egin behar dutela erabaki dute, eta bilera egingo dute zer urrats jarraitu erabakitzeko eta Aliciaren gurasoei zer esango dieten zehazteko. Izan ere, eskolako plan digitala zehazteko garaia iritsi dela uste dute, teknologien erabilera arautu behar dute eta pantailen (tabletak, mugikorak, telebistak) gehiegizko erabilerari loturik eskola-mailako erantzun bat zehaztu behar dute, horrelako kasuetan erantzun bat ematen jakiteko.

3. Egoera: Arreta Goiztiarra

Ikasturte hasieran, ikasleen matrikulak dagoeneko eginak daudela, irakasle berri bat iritsi da Tolosaldeako eskola txiki batera. Bi urteko gelan lan egitea egokitu zaio, eta 6 haur besterik ez ditu izango gelan. Ane da horietako bat. Ane 23 hilabete bete berri dituen haurra da. Bere lehen eskolaratzea da. Familiak itxurari garrantzia ematen diola nabaria da, neska dotorea baita. Baby Led Weaning eredua jarraituz, egunero, bularreko esnearekin batera, tuperrean askotariko jakiak (azpizuna, erreboiloa, brokolia...) zatitan ekartzen ditu eskolara.

Lehen astean, Garapenaren Ohiko Zaintza (GOZ) prozesuan murgildurik zeudela, gelako irakasle iritsi berriak Anek garapen globalean atzerapenak izan ditzakeenaren susmoa hartu du. Banakako formatua begiratu beharrik gabe, zer edo zer "behar bezala" ez dagoela susmatu baitu.

Ane bakardadean eroso sentitzen dela nabaria da. Ez du taldekideekin elkarrekintzarik edo hartu-emanik izateko interesik. Ez du taldeko jardueretan parte hartzen eta jolas errepikakorrak egiteko joera du, esate baterako, blokeak etengabe pilotzea. Ez ditu jostailuak era sinbolikoan erabiltzen (adibidez, panpinekin eszena sinpleak irudikatzen edo panpina haur moduan erabiltzen). Beste haur batzuk bere inguruan jolasten dabiltzanean, Ane urrundu edota beste norabait begira jartzen da. Hots, ez du jolas paralelorik egiten. Horrez gain, behin eta berriz errepikatu zaion arren, ura edan nahi duen bakoitzean nahi duen botila hartzen du berea hartu beharrean.

Hizkuntza garapenari dagokienez, zailtasun nabariak ditu. Modu espontaneoan 8-10 hitz besterik ez baititu erabiltzen. Ahoskera ere mugatua du. Ondorioz, helduek bere beharrak ulertzen ez dituztenean frustrazio adierazten du. Hitzak ez ditu elkartzen eta ez du esaldi sinplerik osatzen. Ikasgelan, argia edota soinua egiten duten jostailuekin entretenitzen da eta denbora luzea igaro dezake jostailuzko autoen gurpilak biraraziz.

Eskolak familiarekin egindako lehen elkarrizketa-txostenean, bere adineko beste haur batzuekin alderatuta oso haur "independente" moduan deskribatu dutela ikus daiteke. Txostenean, besteak-beste, gurasoek bere kabuz jolastea gustatzen zaiola adierazi dutela jasotzen da. Ikasturte hasieran lehen elkarrizketa egin zuen irakasleak haurra garaiz jaio zela agertzeaz gain, haurdunaldi prozesuan zein erditzean arazorik egon ez zela adierazi zuen. Bestetik, txostenean Anek testuinguru ezagunetan emandako agindu sinpleak (adibidez, "etorri hona" edo "hartu hau") oso ondo ulertzen dituela agertzen da, nahiz eta azken honek ez duen ikasgelan bizitako errealitatea adierazten.

Haurra eskolara etortzen edo eskolatik joaten den bakoitzean, irakaslea gurasoekin hitz egiten ahalegintzen da. Modu honetan, informazio gehiago jasotzeko eta berak jasotako informazioa helarazteko asmoz. Gurasoek ez diote egoerari garrantzirik ematen eta lanera doazenaren edo bazkaria prestatu behar dutenaren aitzakiarekin ez dira hitz egiten gelditzen. Oso deseroso sentitu dira pediatriarekin izadako 18. hilabeteko eta izango den 24. hilabeteko kontsultaren inguruan galdetu zaienean.

4. Egoera: Herri jator donostiarra: Jozak, jozan

Donostiako eskola publikoa. Otsaileko lehen ostiralean HH4 eta 5eko ikasleak LHkoekin batera auzoko kaleetatik barna aterako dira Kaldereroak ospatzera. Urtarrila amaieran, Donostiako egunaren ospakizunak igarota, HHko tutoreek gurasoentzako ohar bat prestatu dute inauteriak iragartzen dituen festa honen nondik norakoak azalduz. Ohar horretan marrazki bat txertatu nahi dute, haurren ardura dutenek jantzien inguruko zalantzarik izan ez dezaten. HH5eko Ortzadar gelako tutoreari marrazkiak haurrei ematea otu zaio. Umeek marrazkia koloreztatu eta oharrarekin batera etxera eraman dezaten. Ostiraleko azken ordua horretan eman dute. Tutoreak marrazkiak banatu eta soilik beraien irudia margotzeko adierazi die.



Haurrek gogotsu ekin diote zereginari eta giro alaian aritu dira margotzen. Tutoreak Suhar zalantzati ikusi du. Harengana hurreratu eta egin beharrekoa ulertu ote duen galdetu dio. Suharrek baietz erantzun dio, baina badela kontu bat argi geratu ez zaiona: *zer margotu behar dut ni naizena ala nik nahi dudana?* Tutoreak Suharren galderari gehiegi erreparatzeko kaldererotan eramango duen jantzia koloreztatzeko agindu dio. Oharkabea, arratsaldea igaro zaie. Tutoreak margotzeari utzi eta marrazkien gainean haien izena idazteko eskatu die. Amaitzean, umeak erabilitako margoak jasotzen hasi dira eta bien bitartean, tutoreak haurren marrazkiak bildu ditu. Suharrek egindakoarekin aho bete hortz geratu da; izan ere neskatarren irudia kolore biziz margotu eta honen gainean Suhar izena ipini ditu. Tutorea Suharrengana hurbildu eta hizketan aritu dira:

- Suhar, ez duzu ulertu egin beharrekoa.
- Ez, andereño ondo ulertu dut.
- Orduan zergatik ez duzu koloreztatu zuri dagokizun marrazkitxoak?
- Zuk esan didazulako kaldererotan jantzi nahi bezala margotzeko. Eta horixe egin dut.

Suharrek buelta erdia eman eta alde egin du. Tutorea pentsakor geratu da. Gaurkoan 5 urteko haur bat izan du irakasle. Hezkidetzaren alde egiteko ez da nahikoa gela bati Ortzadar izena jartzearekin. Lanketa sakon bat egitea proposatuko dio eskolari, honek baitu hezkidetzaren plana egoki diseinatu eta gauzatzearen erantzukizuna.

5. Egoera: Hizkuntza aniztasuna Eibarren

Eibarko ikastetxe publikoa. D eredua. Eskolan orokorrean etorkin asko daude, baina guk gela jakin bateko egoerari erreparatuko diogu: Haur Hezkuntzako 5 urteko gela bat da, 21 ikaslez osatua, kulturari eta hizkuntzari dagokionez oso anitza. Honela dago osatuta:

- Sei ikaslek euskara/gaztelania ez beste hizkuntza batzuk dakartzate etxetik. Horietako hiru Euskal Herrian jaioak dira: bi marokoar (etxetik tamazighera) eta errumaniar bat (etxetik errumaniera). Beste hiru, berriz, etorkinak dira, Euskal Herritik kanpora jaiotakoak: boliviarr bat (etxetik kitxua eta gaztelania), nikaraguar bat (etxetik gaztelania) eta pakistandar bat (etxetik punjabiera).
- Bi ikasle etorri berriak dira (otsaila da): portugaldar bat (etxetik portugesa, abenduan iritsia Lisboatik) eta senegaldar bat (etxetik wolofera, ekainean iritsia Ondarroatik).
- Bederatzi ikasle etxetik gaztelaniadunak dira.
- Lau ikasle etxetik euskaldunak dira.

Hauxe da egoera orokorra hizkuntza gaitasunari dagokionez:

Etxetik euskaldun direnek gaitasun aldetik ez dute arazorik eta etxetik bestelako hizkuntzak dakartzatenekiko aldea handia da. Erabilerari dagokionez, euren artean normalean euskaraz egiten duten arren, aspaldian gero eta gehiago ari dira gaztelaniaz. Konturatzen dira gelan gutxiengoa direla, nahiz eta hauetatik hiru bereziki animatuta egon ohi diren euskaraz ondo moldatzen ez direnei laguntzeko.

Etorri berria den ikasle portugaldarra nahiko justu dabil ulermenean. Ez du gelako interakzioan parte hartzen eta tutorea ere ez da parte har dezan asko saiatzen, hizkuntza aldetik mugak dituen denbora gehiago beharko duelakoan. Senegaldarra, bere aldetik, oso ondo moldatzen da euskaraz. Ondarroan bizi izan da 2 urte zituenetik eta ohituta dago euskaraz egiten. Oso irekia da eta erraz integratu da gelan. Ikasle hau hobeto moldatzen da euskaraz gaztelaniaz baino eta gainerako ikaskideei euskaraz hitz egiten die normalean.

Euskal Herritik kanpo jaiotako boliviarr eta nikaraguarrek ere zailtasunak dituzte euskara ulertzeko, eta are gehiago hitz egiteko. Biak iritsi ziren Euskal Herrira 3 urterekin, baina irakasleari eta gainerako ikaskideei gaztelaniaz egiten diete. Gelan nahiko ondo integratuta daude, ez baitute horretarako euskararen beharrik sentitzen. Azkenik, 2 urterekin Euskal Herrira iritsi zen pakistandarra nahiko ondo moldatzen da euskaraz, eta bertan jaioak izan arren euskara eskolaren bidez ikasten ari diren ikasle pareko maila du. Hala ere, nahiko lotsatia da eta batzuetan esan nahi duena esateko zailtasunik ez duen arren, ez du asko parte hartzen gelako dinamikan eta mugatua da gainerako ikaskideekin izan ohi duen interakzioa. Jolas librearen garaian normalean matematika-logika txokoan egoten da, eraikuntzak egiten eta bakarrik jolasten du askotan.

Orokorrean, etxetik euskara ez dakarten ikasle asko (etorkinak izan zein ez) ez daude motibatuta euskara ikasteko. Gehienek gaztelaniaz egiten dute eta euskara eskolan eta batez ere irakaslearekin erabili beharreko hizkuntza dela iruditzen zaie. Tutorearekin batera korroko interakzioan daudenean saiatzen dira euskaraz egiten, baina jolas libreko garaian gaztelania entzuten da nagusiki. Ikasle batzuek ez dute

ulermen arazo handirik, baina ahozko adierazpenean zailtasun handiak dituzte, hiztegi oso mugatua dute eta askotan gaztelaniazko egiturak erabiltzen dituzte euskaraz ari direnean.

Euskaldunak ez diren gurasoen partetik ere ez da euskararekiko jarrera oso positiboa nabari. Irakasleen ustez, guraso etorkin batzuek ez dute ulertzen zergatik ikasi behar duten beren seme-alabek euskara, gaztelania jakinda ederki molda badaitezke. Edonola, irakasleek aitortzen dute guraso hauekiko harremana oso noizbehinkakoa eta trabaz beterikoa dela, askotan, hizkuntza komun bat ez izatearen ondorioz. Era berean, irakasleek autokritika egiten dute: ez daukate gelan dituzten ikasleen ama hizkuntzen inguruko informazio eta jakintza nahikorik.

Ikasleen etxeko hizkuntzek ez dute tokirik gelan, ezta ikastetxean ere. Gabon partean, kultur-aniztasunaren astea egiten da eta ikasle bakoitzaren lurraldeko ezaugarri tipikoak lantzen dira bertan. Horretaz gain, udaberrian, Munduko Arrozen Eguna ospatzen dute ikastetxeko ateak ikas-komunitate osoari zabalduz, baina irakasleak bat datoz: polita izaten den arren, ez da eraginkorra. Halaber, ez dago ikasle hauek eskolan (eta herrian) integratzeko proiektu iraunkorrik. Nolanahi ere, ikastetxea hasi da dagoeneko Hizkuntza Proiektua diseinatzeko eta oso kontziente da proiektuaren ardatza euskara izango bada ere, jatorri atzerritarreko ikasleen hizkuntzek ere beren tokia izan behar dutela horretan.

6. Egoera: Euskararen normalizazioa Irunen

Irunen dagoen eskola publiko handi bat, Haur Hezkuntzan bost lerro dituen maila bakoitzeko, D eremuan. Haur Hezkuntzako lau urteko 23 ikasleko gela bati erreparatuko diogu. Honela dago osatuta:

- 12 ikasle etxetik gaztelania dakarte.
- 8 ikasle etxetik euskaldun dira.
- Ikasle batek etxetik errumaniera dakar. Etorkina da, hiru urte zituela iritsi zen Euskal Herrira.
- Bi ikasle etorri berriak dira: bata, etxetik tamazighera dakar; irailean hasi zuen ikasturtea, gainerakoekin batera. Besteak, etxetik punjabiera dakar; azaroan hasi zuen kurtsoa.

Gelako giroa ona da orokorrean, goxoa eta adeitsua, baina hizkuntzari dagokionez gaztelania da nagusi. Irakasleak jabetu dira gela barruan gehiago egiten dutela euskaraz gelatik kanpo baino. Baina gela barruan ere, jolas libreko garaian batez ere gaztelaniarako joera erakusten dute.

Etxetik euskaldun diren 8 ikasleek geroz eta joera handiagoa dute euren artean eta gainerako gelakideekin hitz egiterako orduan gaztelara jotzeko eta gaztelara eta euskara nahasian erabiltzeko, nahiz eta horietako batzuk oraindik ere hobeto moldatzen diren euskaraz gaztelaniaz baino. Jolas sinbolikoaren gunean daudenean asko aritzen dira gaztelaniaz, batez ere gurasoak imitatzen dituztenean beren jolasa eskolaz kanpoko testuinguruetan kokatzen denean.

H2 euskara duten ikasle askok hizkuntza gaitasunean zailtasunak dituzte. Ulermen aldetiko zailtasunez gain, euskaraz hitz egiteko orduan oso mugatuta daude. Irakasleari zaila egiten zaio denei laguntzera iristea. Korroko interakzioan edo gela osoko dinamikaren bat egiten ari direnean saiatzen da eredu ona eman eta ikasleen ahozkitasuna garatzeko estrategiak erabiltzen, baita buruz buruko elkarriketetan ere. Baina ikasleak euren kasa jolasten ari direnean zaila egiten zaio “egin euskaraz” esan gabe ikasleen jardunean eragitea. Galduta sentitzen da eta ez daki zer egin dezakeen ikasleak euskara gehiago egin dezaten (euskaraz egiteagatik ikasleak saritu...). Horregatik, etengabe errepikatzen du ikastetxean euskaraz egin behar dutela eta ikasgelako araua dela lagunartean eta irakaslearekin euskaraz egitea. Ikasleek oso garbi ikusten dute euskara eskolako hizkuntza dela eta gutxi erabiltzen dutenez, zaila da duten euskara maila hobetzea.

Etorri berriek dagokienez, hau da egoera (otsaila da):

-Etxetik tamazighera dakarrenak irailean hasi zuen kurtsoa, baina irakasleek orain arte ez dute jakin hau zela bere ama hizkuntza, arabiera zela uste zuten. Gustura ikusten zaio klasean, lagunak egin ditu, eta euskarazko esaldiren bat josten hasia da.

-Pakistandarra aurreko hilabetean iritsi zen. ez dirudi eskolan gustura dagoenik: motibazio gabe eta triste ikusten zaio. Jatorriko lagunak eta senideak faltan hartzen ditu. Itxita dago, hitz egiteko gogo gabe, ez irakasleekin ezta gelakideekin ere.

Irakasleak ikasle hauek gelan integratzea nahi du, baina oraindik oso hizkuntza maila baxua dutenez, momentuz hizkuntza entzutea komeni zaiela uste du, eta joango direla poliki-poliki ikasten duten hori praktikan jartzen. Hortaz, ez ditu ikasle hauek gainerako kideekin hartu-emanak izatera bultzatzen eta euren asko hitz egiten badie ere, ez die hitz egiteko aukera handirik ematen.

Gela honetan aurkitzen dugun egoera ikastetxeko beste hainbat gelatan gertatzen denaren oso antzekoa da. Gero eta gela gehiagotan daude etxean euskara edo gaztelania ez beste hizkuntza bat jasotzen duten haurrak eta ikastetxean oro har gaztelaniaren erabilera areagotzen ari da. Garai batean DBHko etapan nabaritzen zen bereziki gaztelaniarantzko joera, baina gaur egun LHn ez ezik, HHn ere gero eta gehiago entzuten da gaztelania, baita etxetik euskaldunak direnen artean ere. Ikastetxeko ikasle askok eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen dute, baina horietako batzuk ez dira euskaraz izaten. Horrez gain, ekintza horietan ia ez da etorkinen seme-alabarik izaten eta oporraldietan antolatzen diren udalekuetan ere ez dute izena ematen. Irakasleek diote horrek are gehiago zailtzen duela ikasle hauen integrazioa.

7. Egoera: Gurasoetara jolastea oso normala da

Eskola publikoa. HH3ko 22 laguneko gela bat. Bertan, erretiroa hartzeaz dagoen eskarmentu handiko irakasle tutorea eta Haur Hezkuntzako 3. ikasturtea burutzen ari den praktikalaria ditugu. Jolas sinbolikoari eskainitako eremuan 3 neskatila eta mutiko bat daude. Familietara jolasten ari omen dira. Aitorrek dio familiburua izango dela; aita. Juneri amona izatea proposatu zaio. Maddik eta Libek, aitzitik, biek ama eta Aitorren emazte izan nahi dute. Ez dira ados jartzen, eta bi neskatila hauen artean sarritan gertatu ohi den bezala, Libek amore eman eta negar batean Maddiri esan dio ez duela jolasten jarraitu nahi. Horrela bada, June amonak, Aitor aitak, Maddi amak eta bi panpintxok eratu dute haien jolas-familia.

Praktikalaria haiengana hurbildu da. Libe joan zaio jolasten uzten ez diotela esatea. Haurra lasaitu eta haren bertsioa entzun ostean, besteena gerturatzea iruditu zaio egokien. Beraiekin hitz egin eta Libe, aurrean dagoela, euren artean gertatutakoa argitu dezatela du helburu. Jolas sinbolikoaren txokora hurbiltzean, June aurkitu du bakarrik bi panpinekin. Honek azaldu dio, berak umeak zaindu behar dituela Maddi eta Aitor gortinan atzean gurasoetara jolasten ari direlako. Gortina korritu eta Maddi hankak gurutzatuak dituela belaunei besarkatuta ikusten du. Aldamenean, pega –pega eginda Aitor, haren eskua Maddiren hankatartera luzatua dauka eta aurpegian musu ematen ari zaio. Zer egin ondo jakin gabe, praktikariak Maddi besotan hartu, gortina atzetik atera eta ondo dagoen galdetu dio. Maddik baietz. Aitor atzetik korrika: *etorri! nire emaztea da*. June, *gurasoetara jolasten ari dira, nik ere nahi det*. Egoera baretu ostean eta haurrak jangelara joan direnean praktikariak ikusitakoarekin oraindik asaldatuta, tutoreari jazotakoa zehatz-mehatz azaldu dio. Irakasle tutoreak, barre txiki bat egin eta praktikariak sexu heziketa afektiboan lanketarik egiten ote duen galdetu ostean honek: *Zertarako? Haurren kontuak dira, beti jolastu izan dira gurasoetara, oso normala da*.

Biharamunean, Maddiren gurasoak irakaslearengana haserre hurreratu dira kontu eske. Aitak modu zakarrean irakasleari bere jarduna oker egitea leporatu dio, alaba babestu ez duela eta bezperatik umea mugituta eta negarrez aritu dela. Bart gauean, afal ostean, Maddik Aitorrekin gurasoetara jolasten ari zela esan eta, zalantzati, aitak hankatarrea ikutzen ote dion galdetu zion amari. Ama aieneka hasi eta senarrari deiadarka logelara etortzeko erregutu zion. Orduztik, Maddi negarrez ari omen da. Irakasleak gurasoak baretu nahi izan ditu. *Lasai egon, haurren kontuak dira, beti jolastu izan dira gurasoetara, oso normala da*.

Irakaslea Maddiren gurasoak lasaitzen ari dela, Aitorrenak azaldu dira. Maddiren gurasoei lotsagabe batzuk direla aurpegiratu eta irakasleari guraso bilera bat eskatu diote. Bart gauean, gelako whatsapp taldean Maddiren gurasoek alabarekin gertatutakoa agertu zuten. Aitorren gurasoak minduta sentitu dira, haien umea guztion ahotan eta gaizkile arriskutsutzat jo izanagatik. Irakasleak buelta erdia eman eta atzean utzi ditu gurasoak haien artean errietan. Hasperen egin eta praktikariari begietara begira ahopeka errepikatu du *haurren kontuak dira, beti jolastu izan dira gurasoetara, oso normala da*.

8. Egoera: 2 urtekoak eta sozializazio goiztiarra

Ikastetxe hau publikoa da, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen da bertan, bi eraikin desberdinetan, baina eskola berbera dira, zuzendaritza bakarra dute eta irakasle klaustroa guztiek osatzen dute. 200 metrotara dute Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoa. Ikastetxea hirian kokatua da, eta B eta D ereduak eskaintzen ditu. Hiru lerro dituen eskola da. Guztira 55 irakaslek, 518 ikaslek eta 240 familiak osatzen dute.

Ikastetxean Haur Hezkuntzako etapakoak mugimendu autonomoa ezartzen ari dira, baina ikuspegi honen inguruko informaziorik ez da ageri hezkuntza proiektuan. Argi markatutako profesionalen bi bando daude eskolan: talde batek Haur Hezkuntzakoak, batez ere, mugimendu autonomoaren alde egin dute azken urteetan, baina Lehen Hezkuntzako irakasleek ez dute hain argi hautaketa hau. Han eta hemen entzun dute metodologia horiekin Lehen Hezkuntzarako trantsizioa zaildu egiten zaiela ikasleei eta emaitzak ez direla izaten Lehen Hezkuntzan, espero bezalakoak. Haur Hezkuntzako maila batean ere erresistentziak egon dira mugimendu autonomoaren ezarpenarekiko.

Erresistentzia hauen adibide garbia ere ez-ohiko egunen inguruan gertatu denak adierazten du. Haur Hezkuntzako irakasle gehienak oso kezkatuak daude sozializazio goiztiarrarekin. Izan ere, uste dute ez dela egokia 2 urteko ikasleekin ez-ohiko egunetan duten parte hartzea. Hau da, ihauterietan, Donostiako egunean, Santo Tomas egunean, Santa Agedan...bi urteko umeak disfrazatu eta festa horri dagokion jarduera guztietan parte hartzen dute beste ikasleekin batera, eta ateratzen dira gurasoen aurrean egiten diren ikuskizunetan.

Zuzendaritza talde berria orain dela sei bat hilabete eratu zen, baina ez zuten inolako proiekturik aurkeztu. Zuzendaritzarako inor aurkeztu ez zenez, ikuskariak antzintasun handiena zuten hiru irakasle jarri zituen karguan, gutxienez bi urtetarako. Zuzendaria da eskolan irakasle gisa denbora gehien daraman irakaslea, eta gutxi geratzen zaio erretiratzeko. Berak ez zuen zuzendari kargua hartu nahi, horregatik etsipenez eutsi zion. Zuzendariak hartu duen lidergo rola *Laissez faire* deritzon lidergora hurbiltzen da. Hau da, uzten die irakasleei beraien kabuz gauzak egiten eta ez da gehiegi sartzen alderdi curricular eta pedagogikoan. Bere ardura nagusia dokumentuak behar bezala betetzea da, burokrazia kontuak txukun izatea, irakasle bakoitza dagokion ordu eta lekuan egotea... Ageriko "arazo" horiek konpontzeari ematen dio bereziki garrantzia. Ondorioz, Haur Hezkuntzako irakasleen eskaeraren aurrean (ez-ohiko egunetan 2. Urtekoen parte hartzea errebisatzea) ez-ikusiarrena egiten ari da zuzendaria. Egoera honen aurrean Haur Hezkuntzako irakasle taldea nekatu da, eta sozializazio goiztiarraren ondorioetan oinarriturik eta 2. Urtekoen garapen faseen inguruan ondo informaturik plan bat martxan jartzea erabaki dute.

Eskolak Guraso Elkarte bat dauka eta kide gutxi batzuk aritzen dira modu aktiboan. Zuzendaritzak ez ditu bilerak egiten elkarteko kideekin. Urtean hirutan parte hartzen dute eskola kontseiluko bileretan bertan dauden familiek baina ez zaie dokumenturik aurrez irakurtzeko eskaintzen eta beraz botoa eman behar dutenean ez dute irizpide garbirik izaten. Ez dago ikuspegi bateraturik familien artean, ez dago ikuspegi landu eta kolektiborik. Ondorioz, sozializazio goiztiarraren inguruan ere iritziak anitzak dira.

9. Egoera: Eskolen araudia IKT-en inguruan

Mikel 4 urteko haur alai bat da, eta pantailak (tabletak, mugikorrak eta telebistak, esaterako) kontzienteki erabiltzea saihesten duen etxe batean hezi dute. Bere gurasoek, teknologiak semearen garapenean izan dezakeen eraginaz arduraturik, beste metodo batzuen bidez bere ikaskuntza bultzatzea erabaki dute. Telebista, marrazki bizidunak edo sarean bideoak ikusi beharrean, Mikeli ipuin kontaketak, aire zabaleko jokoak eta irudimena edo beste hainbat trebetasun sustatzen dituzten sormen jarduerak eskaintzen dizkiote. Haur Hezkuntzako eskolara iristean, berriz, Mikelek etxeko errealitatearekin bat egiten ez duen egoera aurkitu du. Erakundeak modu esanguratsuan integratu du teknologiaren erabilera ikasgelan, ikaskuntza-prozesuetan gailu digitalak sartzea sustatzen duen hezkuntza-legediari jarraituz. Eskolan, haur guztiak tabletak erabiltzen dituzte hainbat jardueratarako, marrazkiak egitetik hasi eta jolas hezitzaile interaktiboetan parte hartzera arte (koloreak, zenbakiak, hizkiak animaliak norbere erritmora ikasten dituzte tabletak erabiliz). Irakasleak arbel digital bat erabiltzen du bideoak, abestiak eta ipuin narrazioak proiektatzeko, eta haurrek askotan taldean lan egiten dute oinarritzko ikaskuntza-kontzeptuak indartzeko diseinatutako aplikazioak erabiliz.

Bere lehen egunetik, Mikel ezeroso sentitu da gelan, ez daki tabletak nola erabiltzen diren eta etxean "txarrak" direla entzun duenez, gaizki sentitzen da bere burua hauek erabiltzera behartuta ikusten duenean. Ikasgelan ikaskideak gailuak erraz maneiatzen dituztela ikusten du, baina berak ez ditu ariketak egin nahi. Gainera, Mikelek ez daki tablet bat ondo erabiltzen, erreparoa ematen dio eta jarduera digitalak egiteak antsietatea sortzen dio. Ikasteko gogoia izan beharrean, galduta sentitzen da, ez baitaki nola erabili behar dituen ikaskideentzat hain ezagunak diren tresnekin.

Eskolako jardueretan, Mikel isilik geratu ohi da, ikaskideak nola inplikitzen diren begira. Irakasleak galderak egiten dituenean, eta haurrek beren tabletetatik azkar erantzuten dutenean, berak ez du erantzuten. Sarritan, parte hartzeko presioa sentitzen du, baina ezagutzen ez duen eta gustatzen ez zaion gailu bat erabili behar izateak larritasun-sentsazioa eragiten dio.

Jolasaldietan, aldiz, Mikelek beti aukeratzen ditu korrika egitea edo blokeekin eraikitzea bezalako jarduerak, teknologiarik behar ez dutenak. Tarte horretan, pozik ikusten zaio, eta ikaskideekin askoz ere gehiago jolasten eta hitz egiten du.

Etxean, gurasoek sumatzen dute semea isilago eta urduriago dagoela. Bere egunari buruz galdetzen diotenean, Mikelek ihes eginez erantzuten du, benetan sentitzen duena partekatu nahi izan gabe. Eskolan duen esperientziari buruz hitz egitea deserosoa egiten zaio, ez baititu gurasoak kezkatu nahi. Hala ere, haren tristura nabaria da, eta ikasgelan sentitzen duen larritasunak haren gogo-aldarteari eragiten dio. Mikelen gurasoek, semea gelan gustura ez dagoela konturatzean, egoera ikertzea erabakitzen dute. Beste guraso batzuekin hitz egin eta haien esperientziak entzun ondoren, ulertzen dute Mikel ez dela ikasgelako dinamikan ezeroso dagoen bakarra. Guraso asko, maila desberdinetan bada ere, kezkatuta daude eskolan teknologia berriak horrenbeste erabiltzeak ikasleengan izan dezakeen eraginagatik. Horregatik, eskolara joatea erabaki dute, beren kezkak adierazteko.

Zuzendariarekin eta irakasleekin egindako bilera batean, gurasoek Haur Hezkuntzaren ikuspegi teknologikoari buruzko kezkak azaldu zituzte. Argudiatzen dutenez, ikaskuntza inklusiboa izan beharko litzateke, eta ez luke bultzatu behar hainbat ikasle baztertuta eta motibaziorik gabe sentitzea. Eskolak gailu digitalen mende ez dauden beste irakaskuntza-metodo batzuk balioesteko nahia adierazten dute, bereziki hain garapen-etapa goiztiarrean. Gaiak eztabaida bizia sortu du irakasleen artean. Batzuek defendatzen dute teknologia haurrak etorkizunerako prestatzeko funtsezko tresna dela, eta teknologien bidez ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako jarduerak eta baliabideak eskain daitezkeela. Beste batzuek, ordea, gurasoen kezkak partekatzen dituzte, eta iradokitzen dute teknologia berrien gehiegizko erabilerak eragina izan dezakeela haurren garapen emozional eta kognitiboan. Gaiaren inguruan luze hitz egin ondoren, ez dira ondorio argi batera iritsi eta ez dakite zer egin. Gainera, ikasgeletan teknologien erabilera birpentsatu beharko litzatekeela uste dute batzuek.

10. Egoera: Gabonak

Errumania jatorritzat duen familia bat lan-arrazoiengatik Euskal Herrira lekualdatu da. Industria sektorean garrantzia handia duten enpresez inguratzen den eremura, Goierri bailarako Ordiziara hain zuzen. 5 urteko alaba, Ana, kuotarik ez duen herriko euskal eskola publikoan eskolaratzeko erabakia hartu dute. Neguko jaiak hurbiltzen ari direla eta, familiek euskal kulturaren ohiturak jarraituz, abenduaren 23an haurrak euskal jantzi tradizionalarekin jantzita eskolako hurrek herrian zehar egingo dituzten jardueretan parte hartzea proposatu dute. Egitasmo honen helburua herriko nortasuna sendotzea eta belaunaldi berriei euskal kultura transmititzea izan arren, zenbaitek uste dute halako ekintzek balizko desadostasunak sortzeko arriskua dakarrela kultura aniztasuna areagotzen ari den gizarte honetan.

Anaren amak, oharra irakurtzean, ikastetxearen proposamena iritsi berri diren lurraldeko kultura ezagutzeko eta honetara gerturatzeko aukera moduan ulertu du. Errumanian ere ospakizun egun berberak dituztenez, haurrak bere jatorrizko jaiak ez ahazteko aukera izan daitekeela adituz. Hortaz, poz-pozik, Ana se villanaz jantzita aurkeztu da ikasgelan. Gelara sartzean, haur batzuek jakin-mina adierazi dute, beste batzuek berriz ez dute horren jarrera ona azaldu eta iseka egin diote. Irakasleak Anca deseroso sentitzen dela antzeman du, ikaskideen hizkuntza beretzat ezezaguna izan arren, ikaskideen aurpegiek adierazitakoa berehala identifikatu baitu. Irakasleak, gatazka etetea lortu du baina zer edo zer egin beharko litzatekeela komentatu du gainontzeko irakasleekin.

Egoera honek aspaldidanik eskolan zebilen mamu bat suspertu du. Abenduko jaietan, eskolan eta kalean abesten diren kanta askok edota egiten diren antzerki gehienek erlijio kutsua izaten dute. Ondorioz, hainbat familia eskolako ospakizunetatik aldendu dira. Beste hainbat familiek, berriz, ospakizunak kultura tradizio gisa ulertzen dituzte, hauek guztiak identitatearen parte direla adituz. Hori dela eta, horrelako ospakizunei eustearen alde daude.

Azken urteetan, hainbat familiaren partetik hainbat mezu ez ofizial jaso ditu eskolako zuzendaritzak. Mezu hauek kontrajarriak izan dira. Familia batzuk ospakizunei garrantzi handiagoa ematearen alde agertu dira, beste batzuek berriz, kristautasunarekin lotzen diren edota kristautasunari erreferentzia egiten dioten hitzak aipatzen dituzten kanta kentzearen alde egiten dute. Horrez gain, familien artean iritziak oso anitzak dira. Batzuek jaiak ospatzeko modu erlijiosoagoa defendatu dute, eta beste batzuek, berriz, jaiak kultura orokorrean oinarrituta antolatzea proposatu dute, erlijioaren presentzia murriztuz.

Ez da irakasleen iritzi ofizialik jaso, baina irakasleen artean ere iritzi ezberdinak aurki daitezke. Batzuek inklusioa eta kultur aniztasuna bultzatzearen aldeko jarrera dute, eta beste batzuek, aldiz, ohiturak mantentzearen alde egiten dute, modu honetan, komunitatea sendotzen duela argudiatuz. Hori guztia aintzat hartuz, zuzendaritza taldea ospakizunak moldatu beharko ote liratekeen hausnartzen hasi da.

2. eranskina: lehen zirriborroa egiteko eskema

Lana egin aurretik, honako txostena aurkeztu beharko zaie irakasle guztiei. Irakasleak, proposamenaren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu ondoren, beren iritzia emango diete ikasle-taldeei.

1. Egoeraren azterketa egin ondoren, egoeraren azalpen laburra: egoeraren gakoak identifikatu eta honen inguruan hausnartu ondoren, paragrafo batean azaldu beharko da taldeak egoeraren zein irakurketa egiten duen.

2. Esku-hartzearen behin behineko helburuak: zeintzuk izango dira identifikatu ditugun gakoetatik abiatuta gure esku-hartzearen helburu nagusiak? Zer lortu nahi dugu diseinatuko dugun esku-hartzearen bidez?

3. Informazio iturriak: aztergai duzuen egoeraren inguruko informazioa bilatzeko baliagarriak izan daitezkeen liburu edo aldizkari zientifikoetako erreferentzien zerrenda (gutxienez 8).

4. Informazioa bildu eta partekatzeko prozedura: egoera horren ezagutzan sakontzeko bilatu beharreko informazioa zein datu basetan bilatuko den eta lan hori taldekideen artean nola banatuko den azalduko da, baita bildutako informazioa taldekideen artean nola partekatuko den ere.

3. eranskina: bigarren zirriborroa egiteko eskema

Bigarren zirriborroak hiru atal izango ditu:

1. Marko teorikoa: gaiaren inguruan irakurri eta beharrezko kontsulta guztiak egin ondoren, bertatik ateratako eduki teorikoak jasoko dira autore desberdinek diotena uztartuz eta konparatuz. Testuan bertan, ideia horiek zein liburu edo artikulutatik atera diren zehaztuko da APA araudiari jarraituz (testu barruan zein erreferentzia bibliografikoen zerrendan). Bigarren zirriborro honetan, beraz, lanaren marko teorikoa garatuko da.

2. Esku hartzearen behin betiko helburuak: marko teorikoan bildutako edukiak kontutan hartuta, behin behineko helburuak errepasatu eta berregingo dira behin betiko helburuak finkatzeko.

3. Erreferentzia bibliografikoak: marko teorikoa osatzeko erabilitako erreferentziak jasoko dira APA arauen arabera (bai testu barruan eta bai erreferentzia bibliografikoaren zerrendan).

4. Talde-dinamikaren inguruko hausnarketa: talde lanaren errubrika baliatuz egindako hausnarketa entregatuko da paragrafo batean laburbilduz.

4. eranskina: Talde lanerako errubrika

TALDE LANA VERSUS LANTALDEA/ELKARLANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA					
¹ (BALORAZIOA: 1: ESKAS; 2: HOBETU BEHAR; 3: NAHIKO; 4: OSO ONGI; 5: BIKAIN)					
IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	Izena 1	Izena 2	Izena 3	Izena 4
		Jarri kide bakoitzari loturiko ebaluazioa dagokion zutabea (1-5)			
EKARPENAK eta PARTAIDETZA	- Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da. - Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak. - Besteei eskatzen dizkie ideiak eta iritziak eta saiatzen da hauek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. - Ezagutza sakontzeko besteei ideien argudioak eskatzen dizkie. - Ulertzen ez duenean galdetzen die lankideei, eta azalpena berak baldin badaki lankideei eskaintzen die.				
JARRERAK	- Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du, - Besteen partaidetza bultzatzen du. - Lankideei laguntza ematen die eta beren merituak aitortzen ditu. - Ideiak kritikatzeko, ez pertsonak. - Talde kohesioa mantentzen saiatzen da eta lankideen gogo-aldarteak kontuan hartzen saiatzen da. - Zailtasun aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak.				
ERANTZUNKIZUNA	- Adostutako arauak betetzen ditu. - Bere lanak adostutako epeetan ematen ditu. - Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazioa. - Lana eman baino lehen orraztu egiten du. - Hartutako konpromisoak betetzen ditu.				
AGERTZE eta PUNTUALITASUNA	- Bilera guztietara agertzen da. - Bileretara garaiz agertzen da eta bukaera arte ez du alde egiten. - Kaleren bat egiten badu edo berandu ailegatzeko bada ongi justifikatzen du.				
GATAZKEN KONPONKETA	- Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen. - Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak. - Saiatzen da beste aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen. - Tentsioak bideratzen saiatzen da. - Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du.				

¹ Egokitua. Iturriak:

Johnson, D.W eta Johson, R.T. (2014): *La evaluación en el aprendizaje cooperativo*. Espainia, Edit. SM.

Chica Merino, E. (2011). Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica. *Escuela Abierta*, 14, 67-81.

5. eranskina: lan idatziaren ebaluaziorako errubrika

			Bikaina	Ona	Hobetzekoa
EDUKIAK	6	Koherentzia	Ideiek progresio logikoari segitzen diote. Ideiak integraturik daude testuaren osotasunean, jauzi handiegirik gabe eta estilo-jauzi handirik gabe. Batasuna atzematen da. Aztergaia finkatuta dago. Proposatutako egituraren arabera antolatu da. Irakurlea ez da erraz galtzen. Antolatua dago.	Ideiek ez diote segitzen progresio logikoari testu osoan zehar Paragrafoetan, zenbaitetan, lotura gabeziak agertzen dira. Ideien arteko mailakatzeari ez zaio beti eusten. Dena ez dago proposatutako egituraren arabera antolatua. Irakurlea tarteka galdu egiten da. Ez dago guztiz antolatua.	Ideiek ez diote segitzen progresio logikoari. Paragrafoetan, askotan, lotura gabeziak agertzen dira. Ideien arteko mailakatzeari ez zaio eusten. Proposatutako egituraren arabera antolaketa ez da betetzen. Irakurlea galdu egiten da. Ez dago ondo antolatua.
		Diziplinartekotasuna	Aztergaia enfokatu eta garatzean, diziplina ezberdinen ikuspuntutik aztertze ahalegina atzematen da. Irakasgai guztietatik nolabaiteko irakurketa edo ekarpena ikusten da.	Aztergaia enfokatu eta garatzean, diziplina ezberdinen ikuspuntutik aztertze ahaleginik ez da atzematen, hutsuneak daude. Ez daude irakasgai guztietatik nolabaiteko irakurketa edo ekarpenak.	Aztergaia enfokatu eta garatzean, diziplina ezberdinen ikuspuntutik aztertze ahaleginik ez da atzematen, hutsuneak daude. Ez daude irakasgai guztietatik nolabaiteko irakurketa edo ekarpenak.
		Dokumentazioa	Informazio iturri aberasgarriak eta askotarikoak erabili dira. Gutxienez 10 erreferentzia dauzka eta horietatik 5 azken 5 urtekoak dira.	Informazio iturri batzuk erabili dira, horietatik artikulua zientifiko gutxi. 10 erreferentzia ez dauzka eta horietatik 2-3 dira azken 5 urtekoak.	Informazio iturriak ez dira artikulua zientifikoetan oinarrituak. 10 erreferentzia ez dauzka eta 0-1 bakarrik dira azken 5 urtekoak.
		Analisia	Eduki teorikoen eta aztertzen den egoeraren arteko lotura egiten da.	Eduki teorikoen eta aztertzen den egoeraren arteko loturak txikiak dira.	Ez da eduki teorikoen eta aztertzen den egoeraren arteko loturarik egin.
		Ondorioak eta proposamenak	Proposamenak egokiak eta baliagarriak dira aztertu den egoerarako. Hobekuntzarako plan horiek egingarriak dira.	Proposamenak egokiak eta ez daude oso egokituta aztertu den egoerarako. Hobekuntzarako plan horiek ez dira oso egingarriak.	Proposamenak ez daude, eta baldin badaude ez daude egoerara egokituak. Hobekuntzarako planak ez dira egingarriak.
		Hausnarketa	Prozesuaren amaieran, lana egiterakoan izandako ahulgune eta indarguneak agerian uzten dira. Ikaskuntza prozesuaren gaineko talde hausnarketa egiten da.	Prozesuaren amaieran, lana egiterakoan izandako ahulgune eta indarguneak agerian ez dira utzi edo ikaskuntza prozesuaren gaineko talde hausnarketa egitea ahaztu da.	Lanaren eta taldearen hausnarketa ez dute sartu edo oso lausoa da.

FORMA	4	Ideien Antolaketa	Ideiak paragrafotan banatzen dituzte eta ideia nagusiak argi adierazita daude.	Ideiak paragrafotan banatzean ez da antolaketa oso egokia erabiltzen eta ideia nagusiak ere ez dira hain argi bereizten.	Ideien antolaketa ez da egokia, paragrafoen banatzean ez dira ideiak argi ulertzen.
		Kohesioa	Ideien arteko loturak modu egokian egin dira, erreferentzia mekanismoak (sinonimoak, anafarak ...) eta lotura mekanismoak (lokailuak, antolatzaileak) behar bezala erabiliz.	Ideien arteko loturak modu egokian egin dira, gehienetan, erreferentzia mekanismoak (sinonimoak, anafarak ...) eta lotura mekanismoak (lokailuak, antolatzaileak) batzuetan ongi erabili ez badira ere.	Ideien arteko loturak modu desegokian egin dira, erreferentzia mekanismoak (sinonimoak, anafarak ...) eta lotura mekanismoak (lokailuak, antolatzaileak) oro har ez dira egoki erabili.
		Terminologia	Kontzeptu eta terminologia espezializatua erabili da eta lan akademikoei dagokien erregistroa erabili da oro har. Hiztegiaren erabilera zaindu dute.	Kontzeptu eta terminologia espezializatua ez da beti erabili eta lan akademikoei dagokien erregistroa ez da testu guztian mantendu. Hiztegiaren erabilera oro har zaindu dute.	Kontzeptu eta terminologia espezializatua ez da erabili eta lan akademikoei dagokien erregistroa falta du lanak. Hiztegiaren erabilera ere ez da zaindu.
		Formatua	Egituraketaren alderdi formalak errespetatu ditu: orrien zenbakitzea, azpi-izenburuak ...	Egituraketaren alderdi formalei dagokienean akatsak daude: orrien zenbakitzea, azpi-izenburuak ...	Egituraketaren alderdi formalei dagokienean akatsak larri dezente daude: orrien zenbakitzea, azpi-izenburuak ...
		Erreferentziak	Erabili dituen iturriak egoki daude aipaturik, bai testuan integratuta eta bai amaieran, erreferentzia bibliografikoen atalean, APA arauari jarraituz.	Erabili dituen iturri batzuk ez daude egoki aipaturik, bai testuan integratuta eta bai amaieran, erreferentzia bibliografikoen atalean, APA arauari jarraituz.	Erabili dituen iturriak ez dira egoki erabili, ez testuan integratuta eta ezta amaieran ere, erreferentzia bibliografikoen atalean, APA arauari jarraituz.
		Zuzentasuna	Hizkuntzaren alderdi formalak errespetatu dituzte. Egindako akatsak ez dira sistematikoak eta ez dira larriak. Sintaxia, puntuazio-markak, deklinabidea, mugagabe/mugatua eta halako elementu linguistikoak ondo erabili dituzte.	Hizkuntzaren alderdi formalak ez dituzte testu guztian errespetatu. Egindako akatsak kasu batzuetan sistematikoak eta larriak dira. Sintaxia, puntuazio-markak, deklinabidea, mugagabe/mugatua eta halako elementu linguistikoetan akats batzuk daude.	Hizkuntzaren alderdi formalak ez dituzte testuan errespetatu. Egindako akatsak sistematikoak eta larriak dira. Sintaxia, puntuazio-markak, deklinabidea, mugagabe/mugatua eta halako elementu linguistikoetan akats larriak daude.

6. eranskina: mahai-inguruaren ebaluaziorako errubrika

EDUKIA	6	Sintesia	Talde bakoitzeko bozeramaileak behar bezala sintetizatu du egindako lana emandako denboran. Modu koherentean antolatu ditu ideiak eta argi azaldu du lanaren edukia.
		Hausnarketa	Taldeetako partaideek solasaldian parte hartu dute eta lanaren inguruko hausnarketa kritikoa egin dute. Besteen lana eta ekarpenak aintzat hartuta, landutako edukien eta ezagutzen gainean modu kolektiboan hausnartu dute.
		Hobekuntza proposamenak	Beren lanetik nahiz beste taldeen iritzi eta hausnarketetatik abiatuta, beren lanean egingo lituzketen hobekuntzak proposatu dituzte taldekideek.
FORMA	4	Zuzentasuna	Hizkuntza zuzen erabili dute taldeko kideek eta ez dute akats larririk egin.
		Egokitasuna	Mahai-inguru akademikoak eskatzen duen formaltasun maila mantendu dute beren parte hartzeetan. Txandak errespetatu dituzte eta besteekiko errespetuz jardun dute hitza hartzean.

7. eranskina: aipuak jasotzeko araudia (APA 7 arauak)

APA 7aren arauak jarraitzeko EHUko liburutegiko gida jarraitu:
<https://www.ehu.es/documents/11525391/0/APA-7-es.pdf>

Testu barruan jasotzen diren aipuak honela jaso behar dira:

- Bi autore agertzen direnean, beti bi autoreak jarriko dira.

Adibidez: Bernaras eta Jaureguizarrek (2010) **diote** ... Eguraldi ona egingo du (Bernaras eta Jaureguizar, 2010)

- Hiru eta bost autore bitartean, lehenengo aldiz autore guztiak jarriko dira, gero, lehenengoa et al.

Adibidez: Bernaras, Jaureguizar eta Soroak (2010) **diote** ... edo
Bihar eguraldi txarra egingo du (Bernaras, Jaureguizar eta Soroa, 2010)
Bigarren aldian aipua egiterakoan, Bernaras et al., (2010); (Bernaras, et al., 2005)

- Sei autore baino gehiago badira, 1. autoreak eta gero, et al.

Adibidez, Bernaras, et al., **-en ustez** (2005), edo Bihar eguraldi txarra egingo du
(Bernaras, et al., 2005)
Erreferentzia bibliografikoetan autore guztien izenak jarriko dira, koma bidez banatuta.
Azkenaren aurrean "eta" jarriko da (& ingelesez).

Erreferentzien atalean ARTIKULUAK nola zitatu:

Kelchtermans, G. (1996). Teacher vulnerability: Understanding its moral and political roots.
Cambridge Journal of Education, 26(3), 307-323.

- Bi eta sei autore bitartean

Adibideak:

Kernis, M. H., Cornell, D. P., Sun, C. R., Berry, A., eta Harlow, T. (1993). There's more to self-esteem than whether it is high or low: The importance of stability of self-esteem. *Journal of Personality and Social Psychology*, 65, 1190-1204.

Llopis, E., Roselló, E., eta Villaroya, J. (2009). "Fills de Kassim" un musical para educar en la convivencia cultural. *Eufonía: Didáctica de la música*, 47(1), 104-116.

- Sei autore baino gehiago

Lehenengo 6 autoreen izena jarriko da eta gero et al.

Adibidez:

Wolchik, S. A., West, S. G., Sandler, I. N., Tein, J., Coastworth, D., Lengua, L. , et al.
(2000). An experimental evaluation of theory-based mother-child programs for children of divorce. *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, 68(8), 843-856.

Artikulua interneten bidez lortuko bagenu, honela zitatu behar da:

Bernaras, E., Jaureguizar, J., Soroa, M., Ibabe, I. eta de la Cuevas, C. (2013). Evaluación de la sintomatología depresiva en el contexto escolar y variables asociadas. *Anales de Psicología*, 29, 131-140. Helbide honetatik ateratakoa: <http://www.xxxx>

DOI

Bernaras, E., Jaureguizar, J., Soroa, M., Ibabe, I. eta de la Cuevas, C. (2013). Evaluación de la sintomatología depresiva en el contexto escolar y variables asociadas. *Anales de Psicología*, 29, 131-140. <https://doi.org/10.6018/analesps.29.1.137831>

Liburuak

Aldecoa, J. (1992). *Historia de una maestra*. Anagrama.

Aldecoa, J. (1992). *Historia de una maestra*. Anagrama. **Helbide honetatik ateratakoa:** <http://www.xxxxxx>

Bramwell, D., eta Bramwell, Z. I. (1990). *Flores silvestres de las islas Canarias*. Rueda.

García Marí, F., Costa Comelles, J., eta Ferragut Pérez, F. (1994). *Las plagas agrícolas*. Phytoma.

Liburuen kapituluak

Boekaerts, M. (2009). La evaluación de las competencias de autorregulación del estudiante. En C. Monereo (Coord.), *PISA como excusa: repensar la evaluación para cambiar la enseñanza* (pp. 55-69). Graó.

Álvarez, I., y Gómez, I. (2009). PISA, un proyecto internacional de evaluación auténtica: luces y sombras. En C. Monereo (coord.), *Pisa como excusa: repensar la evaluación para cambiar la enseñanza* (pp. 91-110). Barcelona: Graó.

Kongresuetan eta Sinposioetan egindako kontribuzioak ere horrela zitutzen dira:

Fraga González, C. (1982). Carpintería mudéjar en los archipiélagos de Madeira y Canarias. In *Actas del II Simposio Internacional de Mudejarismo: arte* (303-313). Instituto de Estudios Turolenses.

Aguilera Klink, F. (2003). Vigencia y necesidad de la nueva economía del agua. En P. Arrojo Agudo y L. del Moral Ituarte (coords.), *La directiva marco del agua: realidades y futuros: III Congreso Ibérico sobre Gestión y Planificación de Aguas* (pp. 175-184). Universidad de Zaragoza.

Interneteko baliabideak nola zitatu

Gutxienez honako datu hauek azaldu behar dira:

- Dokumentuaren egileak eta izenburua
- Helbide honetatik ateratakoa: <http://www.xxxxxxx>

Adibidez:

Sabaté Bel, F. (2005). La isla-continente que quisieron convertir en continente-isla. *Rincones del Atlántico*, 2. Helbide honetatik ateratakoa <http://www.rinconesdelatlantico.com/num2/isla-continente.html>

8. eranskina: taldeen fitxa

ANIZTASUNA ESKOLAN MODULUKO LANA 24/25

LAN TALDEAREN IZENA:

LAN TALDEAREN E-MAILA ETA TELEFONO ZENBAKIA:.....

HAUTATUTAKO EGOERA

Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:

9. eranskina: moduluaren ebaluazio gida ikasleentzat

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (moduluko konpetentziak txosteneko 3. eta 4. orrialdeetan topatuko dituzue)
- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarterko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue ...).
- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarterko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute ...).
- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?

10. eranskina: moduluko lana egiteaz salbuestea

Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute moduluko lana egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.

Graduko ikasleek moduluko lana egin beharko dute, baldin eta gutxienez, modulu bateko bi irakasgaitan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute moduluko lana egin beharrik izango.

Moduluko lana egiteaz salbuetsita dauden kasuan, ikasleek ez dute beste frogarik egin beharrik izango. Kasu honetan, irakasgaiaren nota 10etik emango da eta irakasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du moduluan landu beharreko konpetentziak irakasgaiko ebaluazioan nola barneratuko diren.

11. eranskina: moduluko lana gainditu ezean

Moduluko lana gainditzea ezinbestekoa izango da irakasgai guztiak gainditzeko. Moduluko lana gainditu ezean, ezohiko deialdian berriro aurkeztu beharko da lana. Ezohiko deialdian ere gainditzen ez bada, hurrengo ikasturtean EZINBESTEKOIA izango da lan modularra berriro egitea. Kasu honetan, irakasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du lan modularra egiteaz gain zein beste ebaluazio prozedura erabiliko duen irakasgaiari dagokion edukia gainditzat emateko.

12. eranskina: talde eta tutoreen banaketa

	Kepa	Andoni	Nahia I.	Nahia D.	Berta
1.Egoera					
2.Egoera					
3.Egoera					
4.Egoera					
5.Egoera					
6.Egoera					
7.Egoera					
8.Egoera					
9.Egoera					
10.Egoera					